

BATAIOA

BITARTEAN III

Egun batzuk barru, zuen seme/alabaren bataioa ospatuko duzue. Beretzat dituzuen amets eta nahien artean, opari hau ere egin nahi diozue: bere bizitzak Jainkoaren maitasun samur eta mugagabea sentitzeko aukera.

Seguruenik, gauza bera egin zuten zure gurasoek zurekin... Pentsatu une batez... Bihotzera eraman galdera hauek... Idatzi sentiarazi dizutena, burura eta bihotzera datorkizuna...

**IKUSTEKO,
KLIK EGIN
KLAKETAN**



- Zure bizitzarako..., esanguratsua izan da bataiatua izatea? Zerbait eman dizu... ala, beharbada, kontu horrek ez du aparteko eraginik izan?
- Sentitu duzu Jainkoaren maitasuna? Jainkoak maite zaituela sentitu duzu?

ENTZUN ... eta zeure txikiarekin egiten duzun bezala, Jainkoak estal zaitzala bere esku maitekorraz...



**ENTZUTEKO,
KLIK EGIN NOTETAN**



Amaitzeko, saio hauetan hausnartu edo sentitutako zerbait, bihotzetik sortzen den zerbait, adierazi otoitz erara. Otoitz hau, gero, bataioaren ospakizunean irakurriko duzue. Esker ona izan daiteke seme edo alabaren biziagatik, eskaria...

SAKONTZEKO

“Gure seme-alabaren bataioa” lagungarriez baliatuz, Bataioaren sakramentuaren esanahian eta zuen seme edo alabarentzat bataioa eskatzeko erabakian sakon dezakezue. Gainera, agiriaren azken zatian, ospakizuneko zeinu eta ohikuneen inguruko azalpenak aurkituko dituzue.

**IRAKURTZEKO,
KLIK EGIN
EGUNKARIAN**

